



Zein da forma zuzena: *tatuaia* ala *tatuaje*?





Tatuaje

hobetsi da batasunerako.



Oro har, maileguetan **-aje** atzizkia gordetzea izan da hautua. Hona *Hiztegi Batuak* dakartzan forma batzuk:

blindaje

brikolaje

ekipaje iz. *Heg.* h. **bagaje**

enbalaje

engranaje

erreportaje

fuselaje

garaje

kabotaje

makillaje

masaje

mestizaje

paraje *Heg. Herr.*

pelegrinaje

portzentaje h. **ehuneko**

sabotaje

Laburdura-zeinuak

- e. Erabil (erabili beharreko forma ondokoa da)
- h Hobe (forma hobetsia ondokoa da)
- Heg.* Hegoaldea
- Herr.* Herri-mailakoa
- iz Izena
- * Forma okerra edo euskara batuan saihestekoa



Onartzekoak dira, hala ere, salbuespen modura, **-aia** atzizkia daramaten hitz bakan batzuk:

bidiaia
kuraia *Ipar.* 'adorea'
paisaia
pertsonaia
xantaia

Beste forma hauek, berriz, saihestekoak dira:

aprendizaia* e. **aprendizgo**
ekipaia* e. **bagaje**
fuselaia* e. **fuselaje**
makilaia* e. **makillaje**
masaia* e. **masaje**



Kasu honetan, bi formak gorde dira tradizioan;
zernahi gisaz, adiera diferentea dute:

bisaia

1 iz. 'aurpegia'

Anek ilunduxea zuen bisaia.

2 *deabruen bisaia!* (harridurazkoa)

bisaje

iz. *Herr.* 'itxura harrigarria, zabarra' *Ikusi*
egin behar zen haren bisajea!

Deabruen bisaia!

Bestalde, hiztegieta eta corpusetan *-aje* bukaera duten beste zenbait hitz agertzen dira. Hona horietako batzuk:

ES ▸ EU ▸ pilotaje	Euskalterm	Elhuyar	Zehazki	EHUskaratuak	ETC	Ereduzkoa	

- **bendaje**

- **balizaje**

- **bendaje**

- **errodaje** Industrian:
(*motorren errodajea, esaterako*)

- **hidromasaje**

- **kamuflaje**

- **kilometraje**

- **kronometraje**

- **libertinaje**

- **oktanaje**

- **patinaje** (Kirola)

- **pilotaje** Eraikuntzan:
(*Pilotaje bidezko zimendatzea.*)

- **publirreportaje**

(***publierreportaje**)